

# Hiri Hezitzailea, kontzeptua eta ideia-gakoak

*Olaia Jimenez  
Jose Francisco Lukas  
Felix Basurko  
Karlos Santiago  
Luis Lizasoain*

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea  
Euskal Herriko Unibertsitatea

**GAKO-HITZAK:** Hiri hezitzailea. AICE. Parte hartzea.

Jarraian hiri hezitzaile kontzeptuaren azterketa eta ideia-gakoen sintesia egin da. Aurrerago, artikulua honen osagarria izango den hiri hezitzaile desberdinen praktika aztertzen duen artikulua osagarria argitaratzeko asmoa dugu.

Irakurleak hiri hezitzailearen inguruko ideia-gakoetatik esparru estrategikoan hezitzaile izaeraren garapenaren sistematizazioa jasotzen duen tresna soziopolitiko ezagutzeko ibilbidea egin dezake.

## 1. SARRERA

2006-07 ikasturtean UPV/EHUko Hezkuntzako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak eta Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailen arteko lan-kidetza bidez osatutako ikerketa taldeak Vitoria-Gasteizko udalarekin «*Proyecto para el desarrollo de Vitoria-Gasteiz como ciudad educadora*» izeneko proiektua aurrera eramateko konpromisoa hartu zuen. Proiektua batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuaren hezitzaile izaera lantzeko metodologia garatzean oinarritzen da.

Egitasmo horren baitan hainbat eginkizunen artean, hiri hezitzaileen praktika egokiak eta hezkuntzarako esperientzia berritzaileak aztertzea izan da. Azterketarako datuak biltzeko informazio eta komunikazio teknologietan esanguratsua den Internet erabili da. Internet, espazio birtuala edo ziberespazioa dugu eta hemendik ikerketa bideratzeko eta antolatzeko hainbat gogoeta egiteko parada ere aurkitu da.

Informazio iturriak ere bertan kokatu behar dira, alegia, batetik, AICE<sup>1</sup>ko (Asociación Internacional de Ciudades Educadoras) hiri hezi-

---

<sup>1</sup> <http://w10.bcn.es/APPS/eduportal/pubPortadaAc.do>

tzaileen zerrenda<sup>2</sup> hartu da hiri bakoitzerako sarbidea kokatzeko eta bestetik, BIDCE<sup>3</sup> (Banco Internacional de Documentos de Ciudades Educadoras) hiri hezitzaileen dokumentuak eta esperientziak biltzen dituen datu basea.

Ikerketaren izaera deskribatzailea da. Nolabait fenomeno berri baten egoera aztertu eta deskribatzea izan da asmo nagusia. Hiru izan dira ikerketa garatzeko helburuak: *bat*, hiri hezitzaile kontzeptua ezagutzea; *bi*, hiri hezitzaileen marko estrategikoan esperientzia berritzaileak aztertzea eta *hiru*, hiri hezitzaile ereduaren ildo nagusiak ateratzea. Azken honekin finen, hiri hezitzaile eredu egokiena itxuratzea nahi izan da.

## 2. HIRI HEZITZAILEA: IDEIA GAKOETATIK MARKO ESTRATEGIKORA

Hiri hezitzailea esparru irekiagoan, lurralde eremua erreferentziazat duena, kokatutako ikaskuntza komunitatea dela esan daiteke. Hiria *ikas-kuntzarako espazioa* dela esaten ariko ginateke, hau da, ikaskuntza komunitarioa eta eragin eremua hedatzen duen hiriaz ari gara. Hala ere, autore batzuek diotenaren arabera hiri hezitzaileak ikaskuntza komunitatearen ideia gaindituko luke, alegia kasu horretan ikaskuntza prozesua beharrean, hezkuntza hiriaren motorra dela esaten ariko ginateke (Civis i Zaragoza, 2006).

Hiri hezitzaileen ulermen markoan beraz, komunitatearen hezkuntza dimentsioak ematen dio zentzua komunitatearen bilakaera eta garapenari. Hau horrela izanik, hiri hezitzailea hezkuntzak edukiz jantzi-tako, gorpuztutako eta garapena bultzatzeko hiri eredu gisa aurkezten da.

Hiri ereduaz hitz egitera iristeko ibilbidea ezagutzea izango da ondorengo atalak aztertuko duena. Historia laburrak eramango gaitu hiri hezitzaileen ideia-gakoetan kokatu eta haratago joanez, gaur egunean zein egoera aurkitzen dugun aztertzeraz.

### 2.1. Hiri hezitzailearen ibilbide historiko laburra

Hiri hezitzailea, kontzeptua edo adierazpena dela esan daiteke. Jaio berria den adierazpena dugu. Egile batzuek diotenez eta horien artean Pérezek (2005), hiriak eraldakuntza prozesu nabarmena izan du. Hiriek batez

---

<sup>2</sup> <http://w10.bcn.es/APPS/eduportal/pubPaisosAc.do>

<sup>3</sup> [http://www.bcn.es/edcities/aice/estatiques/espanyol/sec\\_banc.html](http://www.bcn.es/edcities/aice/estatiques/espanyol/sec_banc.html)

ere, garai bakoitzean emandako krisi egoera ezberdinei aurre egin behar izateak eta egoera hauen gaineko gogoetak eraman dituzte hiriak egoerak gainditzeko irtenbideak aurkitzera. Etengabeko ahalegin horietan, irtenbide azpimarragarriena hezkuntza izan da. Honen lekuko ditugu Greziako *polis*a eta Erromatarren *civitas*, haietan hezkuntza hiriaren antolakuntzaren eta bizikidetzaren ardatz ezarri zen. Esan beharra dago ere Errenazimenduko *cittá* eta XIX. eta XX. mendeko hiriek ere garai batean hiriak hezitzaileak izateko beharra aztertu eta hausnartu zutela, eta prozesu horren ondorioa, hezkuntza hiriaren antolakuntzaren ardatz bihurtzea izan zen (Civis i Zaragoza, 2006).

Kontutan izan behar dugu baita, hiriek berezko ezaugarria ere badutela hezteko guraria edo nahia. Baieztapen horren arrazoi nagusia hirietan bizikidetzak bultzaturiko gizarteratze prozesuetan hezkuntza funtsezko elementu izatea da; eta denboran atzera begiraturaz, historian zehar jada Plutarcoren garaitik, hiria hezitzaile egokiena eta hirigunea hezteko leku paregabea zela uste izan zen (Ortega, 1990).

Orain arte aipatutako hiri hezitzaileen lekukotasun historikoen barnean, osotasunean kokatzen ez diren arren bederen, badira beste zenbait esperientzia hiri hezitzailearen esparruan koka daitezkeenak. Hala nola, helduen hezkuntza, etengabeko prestakuntza edo *lifelong learning*, kultura-arteko hezkuntza, gizarte hezkuntza, ikaskuntza komunitateak, hezkuntza formalean, ez formalean zein informalean egindako esperientziak, eta abar besteak beste. Hauek ere komunitatearen garapena eta bilakaera sustatzeko ekimenak direla esan daiteke. Hots, hiritarren prestakuntza bultzatu da hauen bizitza kalitatea neurri batean hobetzeko asmoz.

Aipatutakoaz gain esan behar da, hiri hezitzailea kontzeptu bezala 70. hamarkadan UNESCOk egindako txostenean agertu zela. Txostena, Edgar Faurek zuzendutako «*Aprender a ser*» izenburupean kaleratu zen lehen argitalpena 1973. urtean. Bertan *hezkuntzarako hiria* edo *ciudad educativa* kontzeptuaz ari da. Kontzeptu honek bere baitan heziketaren eginkizuna zabaltzearen edo hedatzearen beharra hartzen zuen bere baitan, alegia hezkuntzaren orientabidea eskola erakundetik at ere kokatu behar zela adierazten da. Txosten honetan gaineratzen du Faurek (1987), hiri hezitzailearen kontzeptua hainbeste nabarmendu ez arren, bai hezkuntzaren kontzeptio globalago eta iraunkorragoa defendatzearen beharra azpimarratzen du. Eta hemendik eskola eta hiria eragile hezitzaile eta lankide gisa identifikatu daitezke.

La idea de educación permanente es la clave de arco de la ciudad educativa [...] La educación debe ser impartida y adquirida por una multitud de medios, ya que lo importante no es saber qué camino ha seguido el sujeto, sino lo que ha aprendido y adquirido (Faure, 1987:265)

Ondorioz, txostena hiri hezitzaile kontzeptuaren sorburuan ezarri dezakegu. Esan bezala hezkuntzaren kontzepzio irekia eta dinamikoa ezartzen baitu eta gizartera irekiera ematen dio; nolabait esan daiteke, txostenak hasierako printzipioak ezartzen dituela nahiz eta hiri hezitzaileen aldarria zuzenean ez egin.

Azkenik esan, 70. hamarkadaz gero, bi ildo nagusi ireki direla hiri hezitzailearen mugimenduaren inguruan. Batetik, bizitza osorako ikaskuntza edo lifelong learning eta bestetik, hiriaren eginkizun hezitzailea. Azken honi garrantzia ematen diona batez ere Bartzelonan 1990ean, bertako Udalak antolatutako, ospatu zen Hiri Hezitzaileen I. Biltzarra izan zen. Biltzarra hiri hezitzaileen hasieraren mugari izan zen, hiri hezitzaileak errealitate bihurtu nahi izan zirelako. Errealitate bihurtzeak praktikan mahai gainean hiri hezitzaileak egiteko eta izateko borondatea aurkeztea esanahi izan zuen. Honen lekuko ditugu Hiri Hezitzaileen Gutuna (Hiri Hezitzaileen I. Biltzarra, 1990) eta AICE (Asociación Internacional de Ciudades Educadoras).

## 2.2. Hiri hezitzailea: kontzeptuaren ideia-gakoak eta ezaugarriak

Arestian esan bezala, Faurek (1987) eginiko txostenak ematen dio hasiera kontzeptuari eta beranduago, 90. hamarkadan indartuko da Bartzelonan ospatutako Hiri Hezitzaileen I. Biltzarrarekin.

Hiri hezitzaileak zentzu eta funtzio desberdinak izan ditzake. Batetik, metafora gisa erabiltzen dena, Faurek txostenean aipatzen duena. Hau da, zentzu utopikoan eginiko metafora, alegia hiri ideala bilatzen duena, ideiak sortzen dituena eta sentsibilitate sortzailea duena, eta bestetik, hiriaren irudia ezagutzera emateko propaganda bezala erabiltzen dena. Erakuslehoaren adibideak argi janzten du metafora.

Hiri hezitzailearen zentzu hauen artean azpimarragarria da Trillak (1999) hiru dimentsio erabiliz hiri hezitzailearen kontzeptua zehazten duena. Hiru dimentsioak hauek dira:

- a) **Hiria, hezkuntza baliabideak dituen:** Proiekzio hezitzailea duten lau bitarteko, erakunde edo egoera mota bere baitan hartzen ditu dimentsio honek. Honako sailkapen hau aipatzen da:
  1. Berriazko hezkuntzarako erakundeak dituen egitura pedagogikoa: nolabait, hezkuntzaren jarraipena ziurtatzen dutenak dira; ikastetxe sarea, hezkuntza ez formaleko erakundeak (helduentzako hezkuntza, animazio soziokulturala...).
  2. Hezkuntzarako bereziki ez diren eta hiritarrentzako diren bitarteko iraunkorrak.
  3. Tarteka antolatzen diren hezkuntza ekintzak, noizbehinkakoak.

4. Pedagogikoki antolatu gabeko topaketa, bizipen eta topagune iraunkorrak.

Trillak (1999:46) aipatzen duen moduan, hiriak izan ditzakeen bitartekoak, erakundeak edo instantziak —museoak, liburutegiak, arte eskolak, elkarteak, ikastetxeak, unibertsitateak...— ere deitu ditzakegunak, errealitate beraren bi alderdi dira, hots, kultura eta hezkuntza harremanetan eta elkarlanean jartzen dituztenak. Hezkuntza erakundeak kulturalak direla eta kulturalak direnak hezitzaileak ere badirela gaineratzen du.

Arrazoi hau dela medio, autoreak hiriaren bitartekoak funtzioaren arabera, hiru erataria sailkatzen ditu: batetik, norbanakoak zuzeneko bizipena izateko aukera ematen dutenak, hala nola, museoak, liburutegiak, musika emanaldiak, zinema, tertuliak; bestetik, kultur edukiak ikasteko bitarteko pedagogikoak parte hartzen dutenean —hezkuntza formaleko erakundeak— eta azkenik, aurreko bien bitartean kokatzen direnak, alegia, ikaskuntza prozesu bat bultzatzeko planifikazio maila bat dagoenean eta aldi berean zuzeneko bizipena eskaintzen duen egoera kulturala (adibidez, aisialdiko taldea, abesbatzak, musika bandak...).

- b) **Hiria, hezkuntza eragilea:** Hiriak bere kasa sortu ditzakeen eragin hezitzaileei egiten dio erreferentzia dimentsio honek. Aipatu eragin hezitzailea hezkuntzaren esparru informalean kokatuko litzateke:

- elementu kulturalak
- bizimoldeak, jarrerak eta arauak
- balioak eta kontrabaliok
- ohiturak, usadioak, itzarobideak
- egiturazko elementuak
- eta abar.

Hiri-ingurunea ikasteko aukerak sortzeko gai da bai zerrendan aipatutako esparruetan baita beste batzuetan ere. Batik bat, hiriak hiritarren bizitzan eta hauen garapenean eragiten baitu. Hiriari aitortzen zaion gaitasunak, hiria bitarteko didaktiko eta instrumentala dela esatera eramaten gaitu. Halaber, baliabide didaktiko den heinean, hiritargoaren gizarteratzean tankera ezberdinetako kinadak eskaintzeko gai era bada. Eta Trillari (1990) jarraituz, hiriaren izaera didaktikoa arrazoitzeko, hiriak bere eremuan biltzen dituen pertsona multzoari eta bere baitan dituen baliabide kulturalak sortarazten dituzten talka edo topaketa komunikatiboei begiratzeraz eramaten gaitu. Begirada luzatuz, hiria «bizitzarako eskola» bezala identifikatzeraz eramaten gaitu edo beste hitz ba-

tzuekin esanda, hiri-ingurunea hiritarren hezkuntza eragilea dela esatera.

Hiri-inguruneak informazio eta kultur eskaintzaren bidez hiritargoa prestatu eta gizarteratzen laguntzen du. Eskaintza honen bidez hiritargoaren arteko sareak ere sustatuz. Baina lerro hauek irakurtzen ditugunean ez dira soilik liburutegiak edo museoak izan behar gure buruetan, haratago jo behar dugu. Hau da, hiriaren antolakuntzak hezkuntzarako duen balio ikusi behar dugu, adibidez, enparantza baten diseinua, hiriaren egitura eta hiriko kaleen mantentze egoera zer-nolakoa den adibidez. Hiri osoa beraz eta ez bakarrik elementu kulturalak hezkuntza-eragile izan daitezkeela da atera dezakegun ondorio nagusietako bat.

- c) **Hiria, hezkuntzarako edukia:** Dimentsio honek hiria ikasteko paradan jartzen du. Hiria hezkuntzarako eragileztat jo eta ezagutza informala sortzea gai ikustez gain, hiria bera ikaskuntzarako iturria dela azpimarratzen da. Batetik, ikaskuntza aipatzen da, maila kognitiboan egin beharreko ikasketa edo eskema berriak eraikitzea adieraziz. Bestetik, ikaskuntzarako iturria esaten da, alegia hiria bera ezagutzaz egokitzea, bertan moldatzen jakitea, espazio ezberdinak ezagutzeta, besteekin harremanetan jartzeta..., adierazi nahi du.

Aurrekoarekin azpimarratu nahi dena zera da: maila kognitiboan eginiko ikaskuntzak nolabait hiriaren irudi bat izatea, hirian harremanak izateko era bat barneratzea eta hiriaren espazioak identifikatzea —maila pertsonalean edo intimitatean— esan nahi du. Finean, bizipen hauekin hiria ikasten dugu.

Hiru dimentsio hauek, hiriak dituen hezkuntzarako aukerak agertzen dituzte. Hala ere, aukerak izateaz gain beharrezkoa ikusten da hezkuntzarako asmoa edo borondatea adieraztea. Adibidez, lehen dimentsioari dagokionez, hiriak hezkuntza baliabide gutxi baditu eta gainera eremu batean pilatuak badaude denentzako ez du sarbide aukera bera eskaintzen beraz, hiria ez da benetako hezitzailea izango. Bigarren dimentsioaren kasuan, hiriak bere jendartean bortxazko harremanak, gizalegezkoak ez diren jarre-  
rak, garapen jasanezina edo kutsadura etengabea baditu, ez da hiri hezitzailea izango. Hirugarrenaren kasuan berriz, hiritarrek hiria ezagutzen ez badute, baliabideak modu ezberdinean banatuak eta hauetara sarbidea mugatua bada ez du ikaskuntza bultzatzen, hortaz, ez da hiri hezitzailea izango.

Horrela ba, hiri hezitzailea ulertzeko marko honetatik ikus dezakegu hiri hezitzaileak askotariko erabilerak, ñabardurak, edukiak..., bere baitan jasotzen dituela. Honek bi alderdi bereiztera eramán gaitzake, batetik, hiri hezitzailea kontzeptua berria izateak eta etengabeko ekarpenak dituen izaki zaila egiten da definizio bakarra eta osatua zehaztea eta bestetik aldiz,

kontzeptuak berak duen aberastasuna adierazten digu. Hala eta guztiz ere, eta Trillaren (1999) hitzak jarraituz, hiri hezitzaile kontzeptuaren hainbat ideia argigarri jasotzea komenigarria da aipatutako ideia nagusien bilduma egiteko asmoz:

1. Hiri hezitzailea kontzeptuak, hiri-ingurunea hezkuntzarako bitarteko, eragile eta eduki bezala hartzen du.
2. Hiri hezitzaileak hezkuntza fenomeno konplexuaren adiera modu egokian biltzen du.
3. Hiri hezitzaile kontzeptua hezkuntzarako harremanak eta eraginak sortzeko lekua da, bai aurrez antolaturik edo gabe.
4. Hiri hezitzailea kontzeptuak prozesu formal, ez formal eta informalak barne hartu eta elkarlotzen ditu.
5. Hiri hezitzailea kontzeptuak hezkuntzaren ikuspegi sistemikoa bere egiten du eta planteamendu barne hartzaileak (integratzailerak) proposatzen ditu.
6. Hiri hezitzailea kontzeptuak bere izaera irekia, dinamikoa eta ebolutiboa aldarrikatzen du.
7. Hiri hezitzailea kontzeptuak hezkuntza integralaren dimentsio guztietara iristeko asmoa azaltzen du.
8. Hiri hezitzailea kontzeptua etengabeko ikaskuntzarekin lotzen da.
9. Hiri hezitzailea kontzeptuak aldi berean errealitatea eta utopia adierazten du.
10. Hiri hezitzailea kontzeptuak, hiria hiritar ororentzat hezitzailea ez dela ohartarazten gaitu. Beharrezkoa da aukera berdintasuna eskaintzea eta ezberdintasunerako eskubidea bermatzea.

Asociación Internacional de Ciudades Educadoras-ek (AICE, 2004) emandako definizioarekin batetik eta ezaugarriekin bestetik amaituko dugu hiri hezitzaile kontzeptuaren inguruko atala.

Hiri Hezitzailearen egitasmoa hiritarren edo herritarren bizitza barne-hartzen edo integratzen duena da. Tokiko administrazioez gain, erakunde eta elkarte publiko zein pribatuei ere badagokien egitasmoa da. Egitasmoaren helburua zentzu hezitzailean eta elkarlanean politikak eta jarduerak garatzea da. Eginkizun honen asmoa hiritarren edo herritarren bizitza kalitateari eragitea, hiritarren izaera eta demokrazia parte hartzailearen eta solidarioaren balioak zainduz (AICE, 2004).

AICEren (2004) definiziotik honako ezaugarri hauek atera ditzakegu:

<p style="text-align: center;"><i>Hiria eragile hezitzailea</i></p> <p>Hiria bere osotasunean hezitzailea da. Ohiko heziketa zentroen, proposamen kulturalen bidez baina baita hirigintzaren planifikazioaren, ingurumen politiken, komunikazio bideen, produkzio sareen edo enpresen bidez ere.</p> <p>Hiriak beraz, hamaika aukera badituela ikusten da eta honek izan dezakeen eragin hezitzaileaz jabetzen hasten da. Eragin honetaz jabetzeaz bat izaera hezitzailea hartu zuten hiriek beraien politiken bidez hiritarrentzako informazio ulergarria sustatzeko, haien parte hartzea bultzatzeko, bizikidetzeta eta gizabidea, osasuna, iraungarritasuna eta abar sustatzeko konpromisoa hartu zuten. Ezbairik gabe, aipatu politikek, emeki-emeki hiriak hiritarrentzako leku hobekak, demokratikoagoak, barne hartzaileagoak eta solidarioagoak bilakatzen ari da.</p>	<p style="text-align: center;"><i>Egitasmo partekatua</i></p> <p>Hiri Hezitzaileak, tokiko agintarien eta jendartearen artean partekatuzko egitasmoa esan nahi du. Nolabait garapen pertsonala zein kolektiboa sustatzeko erabateko politika aktiboak garatzeko gaur eguneko beharrari erantzuten dio.</p> <p>Tokiko gobernuen sail desberdinen —Hezkuntza, Hirigintza, Ogasuna, Kultura, Garraioa, Turismoa, Kirolak, Osasuna...— elkar ezagutza eta aurrera eraman beharreko jarduera hezitzaileen koordinazioa eta zeharkakotasuna izango dira gehiegizko jarduerak saihesteko eta programa eraginkorrak eta interaktiboagoak sustatzeko beharrezko osagaiak. Esan gabe doa Hiri Hezitzailearen egitasmoan diseinuan eta aplikazioan hiritarren parte hartzea ezinbestekoa dela.</p>
<p style="text-align: center;"><i>Kulturaren, ekonomiaren eta gizartearen suspertzailea</i></p> <p>Hiri Hezitzaileak, izaera irekia, sortzailea eta abegitsua duen heinean aurrerapen sozial eta ekonomiko iraungarriari mesede egiten dio.</p> <p>Hiri Hezitzaileak bizitza osoan zeharreko ikaskuntza bultzatu, berrikuntza sortu, giza-kapitala eta gizarte sarea sendotzen laguntzen du, bidenabar hiritar orori bere ekimenak aurrera eramateko aukerak eskainiz eta bide batez, Ezagutzaren Gizarteari bere ekarpena eginez.</p>	<p style="text-align: center;"><i>Hiritarren eskubidea</i></p> <p>Hiriek etengabeko aldaketa kulturalak, politikoak, ekonomikoak, sozialak,... jasaten dituzte. Hauek beharrizan ezberdinak sortzen dituzte eta aldi berean ikaskuntza eta formazio aukera berriak. Era horretara, oinarrikoak eta unibertsalak diren eskubideekin batera, hiri hezitzailearen eskubidea azalerraten da.</p> <p>Eskubide horri heltzek generoagatik, adinagatik, talde etniko-kultural batekoa izateagatik, maila sozio-ekonomikoagatik baztertzen ez duten politikak ezartzea esan nahi du. Honekin batera eta eskubideak bermatzeko esparru praktikora joanik, integrazioa gizarte, ekonomia edo hirigintza esparruetan eta kultura ezberdinen eta belaunaldien arteko elkartasunezko bizikidetzeta sustatuko dituzten praktika egokiak abian jartzea eskatzen du.</p>



### 2.3. Hiri hezitzailea praktikan

Hiri hezitzailearen aurrekariei jaramon eginez hiri hezitzaile kontzeptuaren hasierako zantzuak 70. hamarkadan aurkitzen ditugula aipatu dugu aurrerago. Hamarkada horretatik aurrera errealitate bihurtzen hasten da hiri hezitzailearen ideia. Hiriaren bilakaera honek hiritargoa prestatzeko beharra ere ekarri zuen. Behar honi erantzuteko batez ere haur eta gazteen-gan pentsatu zen, nolabait hiriak eskola erakundearen erantzukizunari babesa eskainiz. Hala ere, aurrerago planteamendu honetan eskola ardatza zela ikusi zen. Ideia hau aztertuz, hiri hezitzaile kontzeptuarekin bat ez zetorrela ikusi zen, alegia hiri hezitzaile eredia eskola eremuaren jarraipen gisa soilik mugatzen zelako.

80. hamarkadan berriz, eskola eta hirigunearen arteko erlazioa sakontzen hasten da. Hiriguneak bizipenak izateko aukerak eskaini behar ditu eta eskolak bizipen kulturalak. Urte hauetan norabidea aldatzen da, hau da, eskolatik hirigunerako jauzi kualitatiboa egiten da. Jauzia esan nahi da eta ez haustura. Norabide berriak gazteak eskola orduetatik kanpo hiriarekin harremantzeko aukerak sortzeko beharra ekarri zuen.

Hirugarren fasea 90. hamarkadatik aurrera kokatzen da. Aurreko faseetatik eskola eta komunitatearen arteko harremana gero eta konplexuagoa egina zetorren. Hezkuntzarako eta komunitaterako egitasmo bat gizarte eragile guztien —eskola erakundeaz gain— artean partekatu behar zela nahiko jorratua eta sustraitua zegoen.

Hamarkada honetatik aurrera hasten da hiri hezitzailea errealitate bihurtzeko sistematizazio prozesua. Beraz, hiri hezitzailea izateak, izateko aukerak dituen hiriak eginahalak egin beharko dituela horrela izateko. Ideia honek hiria konpromiso publikoa hartzera eramango du. Publikoki izaera hezitzailea hartzeak «hezkuntzarako» izatetik «hezitzaile» izatera bultzatzen du. Hots, hiriak bilakaera prozesu bat bizi behar du hezkuntzarako prestatu izan dituen egoerak, ekimenak eta abar egiteaz gain hiriaren izaera hezitzailea bilakatzeko, irakatsiz, ikasiz, ezagutuz, ezagutza sortuz, sormena izanez eta sorkuntza bultzatuz besteak beste.

Hamarkada honen amaieran jauzi kualitatibo nabarmena egin beharra zegoela ikusirik, AICEk konpromiso batzuk mahai gainean jarri eta aho batez onartu behar zirela erabaki zuen. Horretarako 1990. urtean Bartzelonan Hiri Hezitzaileen Nazioarteko I. Biltzarra prestatzen hasi zen. Biltzar horretarako gutun bat prestatu zen eta hiri guztiei bidali zitzairen haiek azter zezaten. Biltzarrean hiri ezberdinek egindako ekarpenak jaso ziren. Lan honen ondorioz, Hiri Hezitzaileen Gutuna (Bartzelonako Adierazpena) izan zen emaitza. Hiri Hezitzaileen Gutunak hogeitaz biltzen ditu. Oro har, honela labur daitezke:

1. Hiritar orori hezkuntzarako eskubidea bermatzea.
2. Hiriak dituen hezkuntzarako baliabide guztien berri hiritarrei ematea.

3. Hirigintzaren ikuspegitik begiratuta, hiriaren antolaketa ghettoak eta bazterkeria saihesteko prestatu.
4. Gurasoei seme-alaben hezkuntza sustatzeko informazioa helarazi eta gazteei ikuspegi berriak eskaini.
5. Elkartegintza lagunduz hiritarren topaketa bultzatu.
6. Hirian elkarrekin bizi diren hizkuntzak ikasteko aukerak eman.
7. Hirira datozen hizkuntza eta bizimodu berriekiko errespetua erakutsi.
8. Hiriaren nortasuna zaindu eta aldi berean hiritarren parte hartzearen bidez hiriaren aldaketei irekia egotea.
9. Berariazko arduradunak izendatu,
  - Etengabeko ikaskuntzarako bideratutako baliabideen koordinazioarako.
  - Informazioarako.
  - Hirigintzaren antolakuntzarako.
  - Profesionalak ez diren hezitzaileen prestakuntzarako.
  - Elkartegintzarako.
  - Hiriko hizkuntzak ulertzeko.
  - Etorkinen harrerarako.
  - Hiriaren nortasuna zaintzeko.

Aipatutako ardurak izateaz gain, argi eta garbi izan behar da he-  
lburu guztien lorpenerako arduradun eta erantzule nagusia to-  
kiko administrazioa dela, Hiri Hezitzaileen Gutuna berak sinatzen  
baitu.

10. Hiriak egiten duen lana biltzeko eta gainontzeko hiriei horren be-  
rri emateko esparrua eta euskarria sortzea. Arrazoi hau dela eta  
proposatzen zaie hiriei Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Elkarteko  
(AICE) kide izatea.

Ondorioz, hiri batek hezitzailea izateko asmoa badu, zerrendatutako  
konpromisoen jabe egin beharko da. Eta horrenbestez, hezitzaile izateko  
prozesu horretan estrategia ezberdinak abian ezarri beharko ditu.

Denboran zehar hiri hezitzailearen ideia diskurtso, hitz eta hausnarketa  
askorekin jantzi izan da. Jantzera horrek sendotasuna eman dio. Esan gabe  
doa, hiria hezitzaile izateko eta bizitzeko filosofia erakargarria ere bada,  
neurri batean bederen, praktikara (esperientzia berritzaileak, egitasmoak,  
planak...) eramatea ahalbidetzen lagundu duena, alegia konkrezio maila ze-  
hatzagora.

Eta konkrezio mailaz ari garen honetan, Trillak aipatzen du zenbait bal-  
dintza bete behar direla hiriak hezitzailea izateko prozesu horretan abian  
jarri behar dituen egitasmoetan. Besteak beste ondorengoak jasotzen ditu  
(Trilla, 1999:38):

- Osotasuna, egitasmoak bideratuko diren biztanleria-talde eta lurralde eremuari dagokionez.
- Integrazioa, bai zatiketa edota gehiegizko espezializazioa saihesteko ideia gisa.
- Testuinguruan kokatu eta zeharkakotasuna, hiriaren errealitatetik ekin unibertsaltasuna ahaztu gabe.
- Edukien zeharkakotasuna, askotariko diziplina aintzakotzat hartu eta gai ezberdinak landu.
- Erakundearen gardentasuna eta iragazkortasuna, hezkuntzaren esparru formal, ez formala eta informala elkarloturik.
- Gizalegezko formazioa, gai ezberdinetan txertaturik hiritartasunerako heziketa lantzea, gizalegezkoak eta demokratikoak diren baliotan.
- Sailen arteko lankidetzaz, egitasmoak bideratzeko administrazioaren sailen arteko lanaren garrantzia.
- Parte hartzea, hiritarren parte hartzea erraztea eta bultzatzea aurrera eramane beharreko egitasmoetan.
- Konpentsazioa, gakoa aukera berdintasuna bermatzeko baldintzak ezartzean datza

Trillak hiri hezitzaileak familia aire batekin identifikatzen ditu. Bere hitzetan honela laburbiltzen du familiaren airea eta hiri hezitzaileak bete beharreko baldintzen esanahia:

[...] Però un «aire de familia», com explicava Wittgenstein, no consisteix a dir que els membres d'una família siguin idèntics, sinó una complexa xarxa de similituds que s'entrecreuen mútuament. Per aixó, tampoc no fóra precís que els projectes i realitzacions que es vulguin acreditar sota el lema de la ciutat educadora compleixin exactament cadascuna de les condicions apuntades, però potser sí que s'assemblin al perfil que dibuixen (Trilla, 1999:39)

Orain arte aipatutakoa aintzat harturik, batetik, Hiri Hezitzailearen Gutuneko konpromisoak eta bestetik, Trillak (1999) jasotzen dituen baldintzak, ondoriozta daiteke, hiriek hezitzaile izaera hartu edo errealitate bihurtzeko aukera badutela. Ildo honetan kokatu behar dira Hiriko Hezkuntza Proiektuak (HHP) edo Proyecto Educativo de Ciudad (PEC), alegia Hiri Hezitzaileen gutuneko konpromisoetatik eta AICEk dituen helburuei atxikirik ateratako proiektuak. Halaber, orain arte aztertu den kontzeptua eta filosofia operatibo bilakatzen duen esparru estrategikoaz hitz egiten ari gara.

## 2.4. Hiri hezitzailea gaur: esparru estrategikoa

Aurrerago aipatu dugun bezala, Bartzelonako Hiri Hezitzaileen I. Biltzarrak ematen dio indarra hiri hezitzaile kontzeptuari eta praktikara begira, hasierako urrats gisa identifikatu izan da. Hasierako urrats horri berebiziko bultzada eman zion Hiri Hezitzaileen Gutun bateratua onartzea. Sortzaileak izan ziren hirurogeita hamar hirik sinatu zuten hasiera batean eta denborarekin, atxikimendu gehiago etorri ziren gaur egunean berrehun eta laurogei izatera iritsi direlarik.

Bi urte beranduago, 1992an Göteborgen (Suedia), Hiri Hezitzaileen Elkarte (AICE) sortzeko estatutuak proposatu eta onartu ziren. 1994an berriz elkarte modu formalean eratu zen; urte hauetan gutunean aldaketa batzuk ere egin ziren eta erreferentziatzat hartzen den gutuna, 1994 eta 2004 urte bitartekoa. Hemendik aurrera hirien arteko harremana estutzen da. Hau da, hirien arteko kontaktua eta esperientzia trukaketa etengabea dela esan daiteke, batak bestearengandik ikasten du.

AICEren izaera formalak elkarteak aurrera jarraitzea ere ahalbidetu zuen. Aurrerantzean gutunak jasotzen dituen konpromisoez gain beste erronka batzuk planteatzen ditu elkarteak. Erronka horien artean dokumentu eta esperientzien bankua sortu, biltzarrak antolatu, beste elkarteak eratu eta nazioen arteko sareak sortzea zeuden.

Gaur egun, 34 herrialde ezberdinetako 280 hiri dira elkartekideak. Espainia, Italia, Portugal, Brasil, Argentina, Frantzia, Kolonbia eta Mexiko dira hirikide gehien dituzten herrialdeak. AICEtik herrialdekako sareak eta nazioarte mailako arlokako sareak eratu dituzte. **Herrialdekako sareak**, komunean dituzten gaiak artatzeko hiri multzoak dira. Sare bakoitzak bere antolakuntza eta funtzionamendua ditu AICEko estatutuak jarraituz eta herrialde horietako hiri bat izaten da koordinazioaren arduraduna. Aldiz, **arlokako sareen** helburuak, ideiak eta esperientzia berritzaileak partekatzea, lan komuna egin eta lankidetzan aritzea dira. Arloak adibidez, eskola porrota, eskolatik lan-mundura igarotzea edo balioetan oinarritutako hezkuntza izan daitezke besteak beste. Batzorde Exekutiboak edo hiri taldeak proposatuak izan daitezke arloak. Kasu honetan ere, haien arteko hiri bat izaten da koordinatzailea.

Hirien dokumentu eta esperientzia berritzaileen bankua ere aipatu dugu arestian. Hauek dira AICEko nazioarteko dokumentu bankua (BIDCE) osatzen dituzten bi atalak: Batetik, eta dokumentuei dagokionez, hiri hezitzailearen kontzeptuaren ulermena lagundu dezaketen irakurgaiak aurki ditzakegu. Bertan, liburu, aldizkarietako artikulua, dossier, biltzarretako transkribapenak eta batzar edo jardunaldietako ondorioen txostenak aurki ditzakegu. Bestetik esperientzia berritzaileei dagokienez, mundu guztiko hiriek gaur egun abian jarri dituzten arlo eta adin-tarte ezberdinei zuzenduriko praktikak dira. Hiriek esperientziak AICEko dokumentu bankuan sartzeko berariaz prestatuak inprimaki bat bete behar dute. Honek AICEko atariaren bidezko hedapena ahalbidetzen duelarik. Aipatu esperientzien

artetik batzuk nabarmentzen dituzte «praktika onak» bezala izendatuz eta beste hiriek eredutzat har dezaten nabarmentzen dira.

#### 2.4.1. *Esparru estrategikoa: Hiriko Hezkuntza Proiektua (HHP)*

Hiri hezitzailearen esparru estrategikora jauzi egin dugu. Hau da, hiriak pedagogia egitetik hiri pedagogia izatera igarotzen den unea eta gunea da. HHP antolatzearekin hiriak hezitzaile izateko eginkizuna edo zehatzago esanda harenganatutako konpromisoak sistematizatzeraz bideratzen du.

HHP hiri hezitzailea errealitate bihurtzeko tresna soziopolitikotzat hartzen da. Hots, ibilbide horretan beharrezko diren estrategia eta tresnak zehazteko urratsa da.

Zehatz-mehatz, HHP edo PEC<sup>4</sup> (ohikoagoa izango da gaztelerazko izendapena hiri hezitzaileen esparruan) hauen sorburua Bartzelonan koka daiteke. Hiri hezitzaile mugimendua eta HHPen implementazioa batez ere Katalunian eman da.

HHPak Hiri Hezitzaileen Gutuneko konpromisoetan eta hiriek egin dituzten plan estrategikoetan ere badute oinarria. Azken honek nolabait eredu eta metodologia gisa ekarpen garrantzitsua egin dio HHPari.

Esan bezala Bartzelona hiriburua eta hurbileko beste hainbat hiri (Xarxa de Municipios izenarekin taldekatuak) eta herri izan dira HHPen hasieran liderrak. Bartzelonan HHP abian jarri zutenetik, gaiaren inguruko gogoetari ekiten zaio. Ondorioz, hainbat dokumentu idatzi eta material sortu ziren. Gaineratu behar da, HHPak tresna berria dela, sistematizazio maila baxua eta arautu gabea dela oraindik. Beraz, HHP bat aurrera eramateko ez dago diseinu metodologiko zehatzik egun.

Azkenik esan, gizarte mailako praktika batez ari garela hizketan eta marko teoriko eta metodologiko sendo batekin ez aritzeak berritasun ezaguarriak ematen dizkiola gaiari.

#### ZER DA HORTAZ HHP?

HHP hiri hezitzailea errealitate bihurtzeko proiektua da eta bere baitan, hiri eredu hezitzaile bati dagozkion hastapenak aitortzen ditu, hauek praktikara eraman ahal izateko zehaztasunak jasoz. Beraz, HHP helburu gehienetan hezitzaileak lortzeko tresna soziopolitikoa da. Horren bidez jardueraplana zehazten da, beti ere plangintza (helburu, metodologia, programa, ebaluazio...) honen helburu eta balio hezitzailea azpimarratu behar delarik.

Honela definitzen du Alegrek beste egile batzuekin batera HHPen esperientziak jaso ondoren egin zuten dokumentuan:

---

<sup>4</sup> PEC: Proyecto Educativo de Ciudad.

Tots els PECs haurien de representar instruments que permetessin al conjunt de la ciutadania i amb el suport de l'ajuntament» participar en la definició de les polítiques educatives locals que contribueixin a la construcció d'un model de ciutat, així com intervenir en la prioritització dels principis, objectius, metodologies i programes que han de guiar l'acció educativa de la ciutat (Alegre, 2006:6)

Definició horretatik atera ditzakegun ideiak honako hauek dira:

- HHPren funtsezko arrazoia bere izaera hezitzailea da eta jarduera esparrua hiria bere osotasunean.
- Hezkuntza, esparru estrategiko honetan, hiritarrei erantzuteko plantejamentu izaki, egitasmo kolektibo eta soziala dela berresten da. Horretaz, HHP hirigunean kokatzen den tresna komunitarioa da.

Azkenik esan, HHPk bi ardatz osagarri ditu abian jarri ahal izateko:

1. Hezkuntzara bideraturiko politika: plan estrategikoa bideratu, koordinatu, zehaztu... egiten duena. Alegia, hezkuntza errealitatearen eraldakuntzarako tresna gisa.
2. Hiritarren parte hartzea: hezkuntza proiektua egin eta garatzeko ezinbesteko metodologia gisa.

Bi motore nagusiak beraz hezkuntzaren ikuspegi aurrerakoiarekin, balioko demokratiko, gizarteratze prozesu, berrikuntza eta garapenarekin uztartzen dira. Finean, aurreko ataletan azpimarratzen den hezkuntzaren ikuspegi globala berrestera dator HHP.

Ondorioz, HHPekin lortu nahi dena —hezkuntza politikaren zehaztapena gizarte eta politika mailako kontsensuarekin— bezain garrantzitsua da heldu nahi den lekura iristeko hiritarren parte hartze prozesua. Parte hartze prozesuak hausnarketarako guneak eta ideia sortzaileak dira. Gune hauek askotariko ideiak eta sentsibilitateak barne hartzen dituzte eta honek batetik hiritarrak eta hiria aberasten ditu eta bestetik, HHPekin lortu nahi diren emaitzak.

Laburbilduz, HHP planifikazio politikorako eta hiritarren zerbitzura dagoen tresna bat da. Bertan jasotzen diren komunitate mailako helburuak hiria hezitzaile bihurtzeko saiakera dira. Beraz, dimentsio komunitarioa eta hiritarra ezinbestean proiektu honen giltza dira eta agerian gelditzen da HHPk gizartearen, komunitatearen eta hiritarren aldetik hezkuntzaren aldeko akordio bat eskatzen duela.

## ZERTARAKO HHP?

Orain arte esandakoarekin badakigu HHParen nolakotasunaren ezagueria eta bere izaeraren motorrak zeintzuk diren. Baina hau jakinik sortzen zaigun hurrengo galdera zertarako behar den HHP hiri baten garapenean da.

Orokorrean, labur bada ere, honako arrazoi hauek aipa daitezke Alegre eta beste (2006) jarraituz:

- Hezkuntzarako ekintzetan parekotasuna, aniztasuna, askatasuna eta autonomia bezalako balioak bermatzeko.
- Hiriaren esparru guztietan eta politikarien agendan hezkuntzak lehen-tasuna izateko. Hezkuntza hiriaren jarduera eta eztabaida orotan zeharkako gaia izatea. Zehatzago esanez, HHPk erronka eta motibazio ezberdinei erantzuna emateko baliabidea izan behar du. Hiriaren be-rezitasunei, errealitateari, interesei eta beharrei erantzuna emateko da.

#### ZEIN BALDINTZA BEHAR DIRA HHP GARATZEKO?

Galdera honen funtsa HHP bat aurrera ateratzeko aurrez behar diren baldintzak zehaztea da. Aztertzen diren baldintzak HHP aurrera ateratzeko hartu beharreko jarrera, konpromisoak eta abar dira. Hauek besteak beste izango dira HHPren garapenaren adierazleak (Alegre eta beste, 2006):

##### a) Udalaren ikuspegitik:

- Lidergo politikoa: HHP hiriko proiektua da, beraz, kontsistorio osoaren babes behar du. Babesaren adierazlea, udaleko Batzar Orokorrean aho batez onartu eta udalaren Jarduera Planean txer-tatzea izango litzateke. Gaineratu beharra dago, hezkuntza alder-dikeriaz erabiltzea saihestu beharreko egoera dela hasiera hasie-ratik. Esperientziak adierazten duenez, komenigarria izaten ahal da proiektuaren ardura sail desberdinetako zinegotziengan ezar-tzea.
- Babes teknikoa: Hasieratik proiektuaren inguruan dabilzan sail desberdinen babes jasotzen duen pertsonal teknikoa behar da. Kasuan kasuko egoera ikusita, teknikoa liberatzea komenigarria izan ohi da. Honek proiektuari jarraipena ematen baitio.
- Aurrekontu partida: Aurrekontu zehatz baten beharra aurreikus-ten da proiektuak eskatzen dituen beharrak asetzeko. Aztertu beharreko beste atal bat gainontzeko erakundeekin (Mankomu-nitateak, Aldundiak eta Gobernuak) baliabideak lortzeko hitzar-menak egitea da. Esan gabe doa, esparru pribatuko erakunde, en-titateek egin ditzaketen ekarpenak era aintzat hartu behar dela.

##### b) Komunitatearen ikuspegitik: Gizartearen eta Udalaren arteko lo-tura eta harremana ezartzea oinarritzko betebeharra da. Komeniga-rria izaten da eginkizun honetan Udalaren eta gizartearen arteko puntu ahulak eta indartsuak argi aztertzea. Jakin beharrekoa da, azterketa horrek sortzen duen harremanak eskaintzen dituen auke-rak argi ikusten lagunduko duela. Honako hauek sustatu behar dira:

- Hezkuntza komunitatearekin (ikastetxeak, zuzendaritza taldeko kideak, guraso elkarteak, eskola edo udal kontseiluak...) kidesuna bilatzeko beharra dago.
- Gainontzeko hezkuntza eragileekin kidesuna bilatzeko beharra. Proiektuan jasoko diren xedeetan eta helburuetan eragina izango du.

#### NON KOKATZEN DIRA PLAN ESTRATEGIKOAK?

Orain arte HHPk izan ditugu hizpide. Esan bezala HHPak Hiri Hezitzaileen Gutuneko printzipioak bere baitan hartzen ditu. Plan estrategikoen kasuan esan behar da tokiko administrazioen tresna dela, zeharkakotasuna edo transbertsalitatea hauek garatzeko modua delarik. Beraz, plan estrategikoak hiriaren ezaugarriei erantzuteko eta hiritarren parte hartzearekin egindako jarduera planak dira.

Bereziki, plan estrategikoak parte hartzearen eta lankidetzaren ondorioz sortzen diren jarduera planak dira. Eragile ezberdinek parte hartzen dute eta honek alderdi eta sektore ezberdinen topaketaren emaitza adierazten du. Hiri bakoitzaren berezitasunaren arabera plan edo planak eratzeari ekarriko du. Hemendik eratorrita proiektu, programa, jarduera edo ekintzak sortuko dira. Normalean lau edo zortzi urtetarako planak izaten dira.

Azkenik esan, plan estrategikoak garapen eredu baten adibide direla. Garapena, iraungarritasuna, kultura eta hezkuntza lehiakorra eta bizitza kalitatea ikur dituen ereduak da. Gaur egun Europako edozein hiritan egoera eta errealitate ezberdinei erantzuna ematen dien plan estrategikoak aurki ditzakegu.

#### ZEIN URRATS DITU HHPK?

Hiru urrats nagusi ditu HHP baten prestaketak. Urrats nagusi hauen baitan beste hainbat eginkizun aurkituko ditugu.

- a) **Aurregogoeta:** Hainbat baldintza zehaztea dakar ondoren HHP egiteko, inplementatzeko eta ebaluazioa egin ahal izateko. Une honetan hiri ereduaren norabidea zehazten da eta komenigarria da lehenik, programatzeko markoa aztertzea: aurrerantzean egingo diren ekintzak programatzeko estiloa zehaztea da eta haietan gutuneko printzipioak zeharka eranstea proiektuko fase guztietan zehar; bigarrenik, hiri ereduak zehaztu behar da, hau da, errealitatearen azterketa (demografikoa, hirigintza, hirigunea, alderdi sozio-ekonomikoak, sare soziala, hezkuntza arloa eta udalaren barne egitura) egin behar da; eta hirugarrenik, proiektuaren borondate hezitzailea zehaztea, alegia hiriaren egoera eraldatzea hiriaren ahalmena aitortuz.



b) **HHParen urratsak:**

- *Aurre diseinua*: Tokiko administrazioaren erabakiak hartzea suposatzen du. Hau da, batetik, aurrerago aipatu den lidergo politikoa ezarri behar da eta bestetik, maila ideologikoan eta kudeaketan hartu beharreko erabakiak kokatzen dira urrats honetan. Horretarako sail guztietako zinegotziek parte hartu behar dute diagnosa komunean eginez.
- *Diseinua*: Talde eragile batek egiten du. Taldean, politikariak, teknikariak, adituak eta hiritarrak egon ohi dira. Talde honek HHPren ildo estrategikoak eta helburuak zehazten dituzte. Beti ere aurreko fasean zehaztu diren baliabide eta programazio ildoak kontutan hartuz.
- *Egikaritzea*: Fase hau teoriatik praktikara igarotzen dena da. Egokia izan ohi da proiektuan jaso diren ekintzak modu egokian gizarteratzea eta hauek hirian izan duten eragina ebaluatzeko teknikak zehaztea.

d) **Azken dokumentua:**

- *Testuinguruaren deskribapena*: hiriaren deskribapena eta analisia, gizarte eta hezkuntza premien diagnosa, hiriaren eta hezkuntzaren alderdi ahulak eta indartsuak, hezkuntza testuinguruaren deskribapena, historia eta aurrekariak.
- *Hastapen orokorrak*: xedeak eta helburu estrategikoak.
- *Ildo estrategikoak*: lan-ildoak eta helburu operatiboak.
- *Hezkuntza baliabideen kudeaketaren antolaketa*.
- *Jarduera plana*.
- *Ebaluazioa plana*: jarraipena, errebisioa eta ebaluazioa.

Hauetako puntu asko HHPn aztertuak egoten dira. Fase guztietan hartu-eman etengabea edo feedbacka mantendu behar da proiektuaren baliagarritasuna eta efikazia bermatzeko.

Jasotze-data: 2008/2/10

Onartze data: 2008/4/23

**Abstract**

---

*Working from the collaboration between different UPV/EHU departments and the Vitoria-Gasteiz city council, the 2006-07 academic year saw the beginning of the project entitled «Vitoria-Gasteiz as an educating city». One of the tasks has been to analyse innovating educational experiences in other similar educating cities which echo our current situation, framing this article. For us, it is a matter of approaching*

*the concept and the key ideas of educating cities by means of the three dimensions proposed by Trilla, the definition and documentation by AICE (International Association of Educating Cities) and the BDCE (Educating Cities Document Bank). This will later become a step towards the strategic framework in which cities attempt to become educators. Each city draws up and develops educator property by means of the City Educational Projects (PEC). PEC is a social-political tool which essentially involves citizen participation. Setting it up requires some minimum prior conditions both from the local authority and from the community and involves following some guidelines.*

**Keywords:** *Educating Cite. IAEC (International Association of Educating Cities). Participation. Educational experience.*

---

*A partir de la colaboración entre diferentes departamentos de la UPV/EHU y el ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz se da comienzo en el curso 2006-07 al proyecto de «Vitoria-Gasteiz como ciudad educadora». Una de las tareas ha sido analizar las experiencias educativas innovadoras de las ciudades educadoras más cercanas a nuestra realidad en el cual debemos enmarcar el presente artículo. Nos trata de acercar al concepto y a las ideas clave de ciudad educadora mediante las tres dimensiones que propone Trilla, la definición y documentación de AICE (Asociación Internacional de Ciudades Educadoras) y del BDCE (Banco de documentos de ciudades educadoras). A continuación, se da un paso hacia el marco estratégico en el cual las ciudades intentan convertirse en educadoras. Cada ciudad elabora y desarrolla mediante los Proyectos Educativos de Ciudad (PEC) la propiedad de educadora. El PEC, es una herramienta sociopolítica que imprescindiblemente lleva consigo la participación ciudadana. Su elaboración requiere de unas condiciones mínimas previas tanto de la administración local como de la comunidad y unos pasos a seguir.*

**Palabras clave:** *Ciudad educadora. AICE (Asociación Internacional de Ciudades Educadoras). Participación. Experiencia educativa.*

---

*À partir de la collaboration entre les différents départements de l'UPV/EHU et la municipalité de Vitoria-Gasteiz, le projet «Vitoria-Gasteiz, Ville Éducatrice» a été lancé lors de l'année 2006-2007. Une des tâches a consisté en l'analyse des expériences d'éducation innovantes menées dans les villes éducatrices les plus proches de notre réalité dans laquelle entre le présent article. Il tente une approche du concept et des idées clés de la Ville éducatrice sous les trois dimensions que propose Trilla, la définition et la documentation de l'AICE (Association Internationale des Villes Éducatrices) et du BDCE (Banque de données des Villes Éducatrices). Par la suite, on passe au cadre stratégique dans lequel les villes tentent de devenir des*

villes éducatrices. Chaque ville élabore et développe grâce aux Projets Éducatifs de la Ville (PEC) la propriété éducatrice. Le PEC est un outil sociopolitique qui entraîne indispensablement la participation citoyenne. Son élaboration exige des conditions minimum préalables que ce soit de la part de l'administration locale ou de la communauté ainsi que plusieurs étapes à franchir.

**Mots clé:** Ville Éducatrice. AIVE (Association Internationale des Villes Éducatrices). Participation. Éxpérience d'Éducation.

## BIBLIOGRAFIA

- AICE (2004): «La Carta de Ciudades Educadoras, Génova 2004». *Aula de Innovación Educativa*, 152, 24-28 orr.
- AICE BILTZARRETAKO DOKUMENTUAK: [http://www.bcn.es/edcities/aice/estatiques/espanyol/sec\\_congresses.html](http://www.bcn.es/edcities/aice/estatiques/espanyol/sec_congresses.html) (2007/10/25ean kontsultatua).
- AJUNTAMENT DE BARCELONA (TRILLA, J., coord.) (1990): *La ciudad educadora. / La ville éducatrice*. I. Congrès Internacional de Ciutats Educadores. Barcelona.
- ALEGRE, M.A. (koord.) (2006): «Projectes educatius de ciutat: anàlisi de l'experiència acumulada i nova proposta metodològica: resum dels principals continguts de la guia metodològica». *Moment actual dels PECs. De Prop: revista de política educativa local*, 15.
- BIDCE: [http://www.bcn.es/edcities/aice/estatiques/espanyol/sec\\_banc.html](http://www.bcn.es/edcities/aice/estatiques/espanyol/sec_banc.html) (2007/10/25).
- CIVIS I ZARAGOZA, M. (2005): *Los PECs como a praxis de desenvolupement comunitari d gènesi socioeducativa*. Doktorego Tesia. Bartzelona. 41-168 orr.
- FAURE, E.; HERRERA, F.; ABDUL-RAZZAK, K.; PÉTROVSKI, A.V.; RAHNEMA, M. & CHAMPION, F. (1987): *Aprender a ser*. Madril: Alianza Universidad. UNESCO.
- ORTEGA ESTEBAN, J. (1990): «La idea de ciudad educadora a través de la historia». *La ciudad educadora. / La ville éducatrice*. I. Congrès Internacional de Ciutats Educadores. Barcelona 1990. Bartzelona: Ajuntament de Barcelona. 91-102 orr.
- PÉREZ, P. (2005): «¿La ciudad puede llegar a ser educadora?». *ICONOS. Revista de Ciencias Sociales*, 9 (23), 127-140 orr.
- TRILLA (1999): «La idea de la ciutat educadora». *Temes d'educació*, 13, 11-51 orr.